



IUGS ZUMAIAKO ADIERAZPENA

IUGS ZUMAIAKO ADIERAZPENA



Lurrak 4.570 milioi urte ditu. Prozesu geologikoek sortu zituzten baldintzek bizitza ekarri zuten eta denbora horretan biosfera erregulatu dute. Azken bi mendeetan Geologia Zientziek aukera eman digute Lurraren historia luzea ezagutzeko eta gure planetak nola funtzionatzen duen ulertzeko.

Erregistro geologikoak erakusten duen denbora "sakonaren" handitasunak apaltasunez begiratzera behar-tzen gaitu, eta gure espeziea iritsi berria dela onartu behar dugu. Hala ere, gure jardueraren eraginez, azkar eta sakonki eraldatzen ari dira lurraren azalera, bertako prozesuak eta ekosistemak, denbora luzean zehar eboluzionatutako biosfera estutuz.

Organismo batzuek aldaketa handiak eragin dituzte Lur sisteman iraganean. Hala ere, gurea da gure inpaktuaren tamaina eta abiadura ulertzeko gai den espezie bakarra. Gure kontzientziak eta ezagutzak erronka globalei arduraz ekitera behartzen gaituzte.

Testuinguru horretan, Geologia Zientzien Nazioarteko Elkarteak, bere 60. urteurrenean, 40 herrialdetako 200 aditu baino gehiagorekin, Lurraren Zientzietako erakunde nagusien ordezkari gisa, honako adierazpen hau ematen du jakitera:

Geologia eta gizarteak

Lurraren Zientziek, beren diziplinen bitartez, gure gizarteak denboran zehar garatzen laguntzeko beharrezko den ezagutza eman dute.

Aldaketa globalaren testuinguruan, ezagutza zientifikoan oinarritutako politiken bidez egin behar zaie aurre erronka estrategikoei; hala nola biodibertsitatearen krisiari, klima berotzeari, uraren kudeaketari, mineralen eta beste lehengai batzuen eskariari, baliabide energetiko fosilei eta berriztagarriei, arrisku naturalei eta zenbait espazioren ingurumen-degradazioari, bai eta bertako populazioen iraunkortasunari ere.

Gure planetak eskaintzen dizkigun benetako aukerak ulertzeko funtsezko informazioa ematen digute Lurraren Zientziek.

Elkarlaneko zientzia

Lurra sistema bakarra da. Bere historia erakusten duen erregistro geologikoaren eta gaur egungo prozesu dinamikoaren ikerketa funtsezkoa da Lur sistema ulertzeko.

Lurraren Zientzietan ikerketa aplikatua sustatzeak zuzenean laguntzen du Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuetan.

Ikerketak dimentsio handiagoa hartzen du diziplinartekoa denean eta beste ezagutza-arlo batzuekin lankidetzat bultzatzen duenean, esaterako bizitzaren zientziekin eta humanitateekin.

Herrialdeen eta erakunde zientifikoaren arteko lankidetzak zientzia indartzen du eta aukera ematen digu gizartearen erronka globalei hobeto aurre egiteko. Ezagutza zientifikoak partekatua eta solidarioa izan behar du.

Ondare geologikoa

Geologia zientzia zoragarria da. Lurraren eta haren historiaren ezagutza, hein handi batean, Zientzia Geologikoak sortu zirenetik deskribatu izan diren leku eta paisaien azterketan oinarritzen da.

Leku horietako batzuek balio berezia dute. Gune inspiratzaileak eta apartak dira, Geologia Zientzien garapenean nabarmen lagundu dutenak. Lurraren memoria adierazten dute, natura-ondarearen zati banaezina dira eta erabakitasunez balioetsi, kudeatu eta kontserbatu behar ditugu.

Aurrekoa aintzat hartuta, IUGS – Geologia Zientzien Nazioarteko Elkarteak konpromiso hau hartzen du:

Funtsezkoa da Geologia Ondarea behar bezala katalogatzea eta kontserbatzea.

IUGS elkartearen helburua da maila globalean garrantzi zientifiko handiena duten lekuak identifikatzea eta ezagutaraztea. Geologia-ondarea eta geodibertsitatea ardatz duten ekimenen eta nazioarteko organo guztien arteko lankidetzak aitortza zabalagoa emango dio, ondare hori hezkuntza-baliabide iraunkor gisa erabiltzea sustatuko du eta, bereziki, hobeto kontserbatzen lagunduko du, gizartearen eta etorkizuneko belaunaldien onerako.

Munduko Geologia Ondarearen lehen IUGS interesguneen aukeraketa UNESCO-ren Nazioarteko Zientzia Geologikoen programaren baitan gauzatu da. Leku hauen aurkezpena ekarpen garrantzitsua da IUGS elkarteak, Lurraren Zientzietako beste erakunde batzuekin batera, geologia-komunitatearekin eta oro har herritarrekin partekatzen duen aitortzen programa honetan.

Zumaian,
Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkean,
2022ko urriaren 28an.



SCIENTIFIC SUPPORT



INSTITUTIONAL PARTNERS

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Geoparkea
Euskal Kostaldea - Costa Vasca

